# I ARABAKO FORU ALDUNDIA

## Administrazio Xedapenak

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**4067**

**44/2009 FORU DEKRETUA, maiatzaren 26ko Kiputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, aldatu egiten dira abenduaren 16ko 105/2008 Foru Dekretuak jasotzen zituen mezularitza eta mandatu jardueretarako onartutako magnitude espezifiko eta moduluak. Foru dekretu horren bidez, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko erregimen erraztua onartu zen, 2009rako.**

2008ko abenduaren 29an, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitara eman zen abenduaren 16ko 105/2008 Foru Dekretua, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erraztua 2009rako arautu zuena.

Araubide berezi honetan 2009an lehenengo aldiz sartu den mezularitza eta mandatu sektoreko errealitate ekonomikora egokitzeko, jarduera honi dagozkion magnitude espezifikoa eta moduluak aldatu behar dira, jarduera norbere garraiobideak soilik erabiliz egiten denean.

Kontuan izanik Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erraztuari uko egiteko eta ukoa ezeztatzeko epea eta 2009ko ekitaldiko lehenengo hiruhilekoari dagokion kuota ordaintzeko epea igaro direla, uko egiteko eta ezeztatzeko epe berezi bat ematen zaie foru dekretu honek eragindakoei, eta aukera ematen da bigarren eta hirugarren hiruhilekoei dagozkien kuotak onartutako modulu berrietan oinarrituz kalkulatzeko.

Arabako Foru Aldundiaren Aholku Batzordearen Arautegi Organikoak 3. artikuluko hirugarren paragrafoan xedatutakoari jarraituz, aipatutako batzordearen txostena ez da nahitaezkoa.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak egindako txostena aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Lehenengoa. Mezuak eta mandatuak eramateko jarduerarako magnitude espezifikoa aldatzea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erraztua 2009rako arautu zuen abenduaren 16ko 105/2008 Foru Dekretuko bigarren idatz zatiko d) letran mezuak eta mandatuak eramateko ekonomia jarduerarako definitutako magnitude espezifikoa, jarduera hori norbere garraiobideak soilik erabiliz egiten denean, hau izango da: 5 ibilgailu urteko edozein egunetan.

Bigarrena. Mezuak eta mandatuak eramateko jarduerarako onartutako moduluak aldatzea.

Mezuak eta mandatuak eramateko jarduerarako (jarduera hori norbere garraiobideak soilik erabiliz egiten denean) 2009an aplikatzeko diren moduluak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erraztua 2009rako arautu zuen abenduaren 16ko 105/2008 Foru Dekretuaren II. Eranskinean jasoak, ondoko hauek ordeztuko dituzte:

JARDUERA: MEZULARITZA ETA MANDATUAK EGITEKO ZERBITZUA, JARDUERA NORBERE GARRAIOBIDEAK SOILIK ERABILIZ EGITEN DENEAN

*JEZeko epigrafea: 849.5*

| MODULUA | DEFINIZIOA | UNITATEA | UNITATEKO URTEAN SORTUTAKO KUOTA EURO |
|---|---|---|---|
| 1 | Enplegatutako langileak | Pertsona | 3.161,90 |
| 2 | Ibilgailuen zama | Tona | 296,04 |

Ohiko eragiketengatiko gutxieneko kuota: ohiko eragiketengatik sortutako kuotaren % 10.

# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Disposiciones Administrativas

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**4067**

**DECRETO FORAL 44/2009, del Consejo de Diputados de 26 de mayo, que modifica la magnitud específica y los módulos aprobados para la actividad de mensajería y recadería por el Decreto Foral 105/2008, de 16 de diciembre, que reguló para 2009 el régimen simplificado del Impuesto sobre el Valor Añadido.**

Con fecha 29 de diciembre de 2008 se publicó en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava el Decreto Foral 105/2008, de 16 de diciembre, que regula para el 2009 el régimen simplificado del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Con objeto de adaptarse a la realidad económica del sector de mensajería y recadería, incluido por primera vez en este régimen especial en el año 2009, se procede a modificar la magnitud específica excluyente y los módulos correspondientes a esta actividad, cuando se realice exclusivamente con medios de transporte propios.

Habida cuenta de que han vencido ya tanto el plazo para las renuncias y revocaciones del régimen simplificado del Impuesto sobre el Valor Añadido, como el plazo de ingreso de la cuota correspondiente al primer trimestre del ejercicio 2009, se otorga un plazo especial para las renuncias y revocaciones a los afectados por el presente Decreto Foral, y se permite que las cuotas correspondientes a los trimestres segundo y tercero se calculen sobre la base de los nuevos módulos aprobados.

Según lo previsto en el párrafo tercero del artículo 3 del Reglamento Orgánico de la Comisión Consultiva de la Administración Foral de Álava, no es preceptivo el informe de la citada Comisión.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO:

Primero. Modificación de la magnitud específica para la actividad de transporte de mensajería y recadería.

La magnitud específica definida en la letra d) del apartado Segundo del Decreto Foral 105/2008, de 16 de diciembre, que regula para el 2009 el régimen especial simplificado del Impuesto sobre el Valor Añadido, para la actividad económica de transporte de mensajería y recadería, cuando la actividad se realice exclusivamente con medios de transporte propios, será de 5 vehículos cualquier día del año.

Segundo. Modificación de los módulos aprobados para la actividad de transporte de mensajería y recadería.

Los módulos aplicables en 2009 para la actividad de transporte de mensajería y recadería, cuando la actividad se realice exclusivamente con medios de transporte propios, contenidos en el Anexo II del Decreto Foral 105/2008, de 16 de diciembre, que regula para el 2009 el régimen especial simplificado del Impuesto sobre el Valor Añadido, se sustituirán por los siguientes:

ACTIVIDAD: TRANSPORTE DE MENSAJERÍA Y RECADERÍA, CUANDO LA ACTIVIDAD SE REALICE EXCLUSIVAMENTE CON MEDIOS DE TRANSPORTE PROPIOS

*Epígrafe IAE: 849.5*

| MÓDULO | DEFINICIÓN | UNIDAD | CUOTA DEVENGADA ANUAL POR UNIDAD EUROS |
|---|---|---|---|
| 1 | Personal empleado | Persona | 3.161,90 |
| 2 | Carga vehículos | Tonelada | 296,04 |

Cuota mínima por operaciones corrientes: 10% de la cuota devengada por operaciones corrientes.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Uko egiteko eta ezeztatzeko epe berezia.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek, mezuak eta mandatuak eramateko jardueran aritzen badira (jarduera norbere garraiobideak soilik erabiliz egiten denean) eta 2009rako araubide berezi erraztuari uko egin edo uko hori ezeztatu nahi badute, foru dekretu hau argitara eman eta hurrengo egunetik 2009ko ekainaren 30era arte baliatu ahal izango dira aukera horretaz.

2009rako arauz aurreikusitako epeen barruan subjektu pasibo horiek aurkeztu dituzten uko eta ezeztatzeak aurkeztutakotzat emango dira. Hala ere, subjektu pasibo horiek beren aukera aldatu ahal izango dute aurreko paragrafoan ezarri den epean.

Bigarrena. Hiruhileko kuotak

Mezuak eta mandatuak eramateko jardueraren titularrek (jarduera hori norbere garraiobideak soilik erabiliz egiten denean), Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide berezi erraztuan ordaintzen badute zerga, foru dekretu honen bidez onartutako moduluetan oinarrituz kalkulatu ahal izango dituzte 2009ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoei dagozkien hiruhileko kuotak.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau ALHAOan argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean eta 2009rako izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko maiatzaren 26a.– Diputatu Nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Foru Diputatua, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Ogasun Zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera. Plazo especial de renuncias y revocaciones.

Los sujetos pasivos del Impuesto sobre el Valor Añadido que ejerzan la actividad de transporte de mensajería y recadería, cuando la actividad se realice exclusivamente con medios de transporte propios, y deseen renunciar o revocar su renuncia al régimen especial simplificado para el año 2009, podrán ejercitar dicha opción desde el día siguiente a la fecha de publicación de este Decreto Foral hasta el 30 de junio de 2009.

Las renuncias y revocaciones que se hubiesen presentado por estos sujetos pasivos en los plazos reglamentarios previstos para 2009 se entenderán como presentadas. No obstante, estos sujetos pasivos podrán modificar su opción en el plazo previsto en el párrafo anterior.

Segunda. Cuotas trimestrales.

Los titulares de la actividad de transporte de mensajería y recadería, cuando la actividad se realice exclusivamente con medios de transporte propios, que tributen por el régimen especial simplificado del Impuesto sobre el Valor Añadido, podrán calcular las cuotas trimestrales, correspondientes al segundo y tercer trimestre de 2009, en base a los módulos aprobados por el presente Decreto Foral.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOTHA con efectos para el año 2009.

Vitoria-Gasteiz, 26 de mayo de 2009.– Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Director de Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

*Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak*

## GAZTERIAREN ETA GIZARTE SUSTAPENAREN SAILA

**4007**

**300/2009 ERABAKIA, maiatzaren 19eko Kiputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Garapenerako Lankidetzaren I. Foru Plan Zuzentzailea onartzen da.**

Azken hogei urteotan munduko ekonomia hasteko moduak ez du lortu txirotasun modurik gordinenak desagerraraztea. Datuek erakusten dutenez, oraindik 1.100 milioi lagun muturreko txirotasunean bizi dira; haietako %70 emakume dira, eta 850 milioi baino gehiagok gose kronikoa pairatzen dute. Milioika lagunen txirotasuna erronkarik mingarriena da, ezin dutelako bizimodu duinik izan eta, maiz, bizitza bera arriskuan dagoelako.

Garapenerako lankidetza herri aberatsenek gainontzekoei garapena lortzen laguntzeko egindako proposamena da. Bigarren Mundu Gerraren bukaeran sortu ze eta, sei hamarkada baino gehiagotan, laguntza hori ulertzeko zenbait modu egon dira.

Munduko egoeran gertatutako aldaketek egungo gizartearen aldaketa sakona dakarte. Lehenengo eta behin, gizarte globalaren premia larria ikusten delako; eta, bigarrenez, tokiko gizarteen aldaketak garapenerako estrategiak eta gizarte global horrekiko harreman berriak birpentsarazten dizkielako.

Garapenerako lankidetzaren eta giza eskubideen arloko elkarlan eta koordinazioaren esparruan, eta garapenerako lankidetzaren kudeaketa etengabe hobetu eta eraginkortasuna eta gardentasuna handitzeko apustu sendoa egiteak duen garrantziaz jabeturik, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru foru aldundiak Plan Zuzentzaile baten idazketan murgilduta gaude, bakoitzak garapenerako lankidetzan daraman politikaren plangintzarako tresna nagusia delakoan.

*Acuerdos del Consejo de Diputados*

## DEPARTAMENTO DE JUVENTUD Y PROMOCIÓN SOCIAL

**4007**

**ACUERDO 300/2009, del Consejo de Diputados de 19 de mayo, que aprueba el I Plan Foral Director de Cooperación.**

La forma en que se ha producido el crecimiento económico mundial de los últimos veinte años no ha conseguido erradicar las manifestaciones más crudas de la pobreza. Los datos revelan que 1.100 millones de personas viven todavía en condiciones de extrema pobreza, de las cuales el 70% son mujeres, y más de 850 millones padecen hambre crónica. La pobreza de millones de personas constituye el desafío más lacerante, ya que no pueden tener una vida digna e incluso, frecuentemente, la vida misma se encuentra en peligro.

La cooperación al desarrollo ha sido la propuesta de los países más ricos para ayudar a los demás en el objetivo de alcanzar el desarrollo. Tuvo su origen a finales de la Segunda Guerra Mundial y, a lo largo de más de seis décadas, se han sucedido diversas formas de entender esa ayuda.

Los cambios producidos en el escenario mundial suponen una modificación profunda de la sociedad actual. Primero, porque se asiste a la emergencia de una sociedad global; y, segundo, porque se produce una transformación de las sociedades locales que obliga a replantear las estrategias de desarrollo y las nuevas relaciones con esa sociedad global.

En el marco de la colaboración y coordinación que en materia de cooperación al desarrollo y derechos humanos estamos desarrollando las tres diputaciones forales de la Comunidad Autónoma Vasca y conscientes de la importancia de apostar de forma decidida por la mejora continua en la calidad de la gestión de la cooperación al desarrollo, el aumento de la eficacia y la necesaria eficiencia y transparencia, se ha elaborado de forma consensuada un Plan Director como principal instrumento de planificación estratégica de la política de cooperación de las tres Diputaciones Forales.